

## **ESKOLA INKLUSIBO BATETIK KALITATEKO ESKOLA BATERA**

UNESCOren 48. Nazioarteko Hezkuntza Konferentzian, 2008an, 153 estatukidetakoko Hezkuntza ministroek eta ordezkariak buruek onartu zuten **hezkuntza inklusiboa** oinarrikoa eta funtsezkoa dela garapen pertsonala, soziala, kulturala eta ekonomikoa lortze aldera. Nazioarteko erakunde, konferentzia, adierazpen eta gomendio guztiek esaten dute hezkuntza sistemek egin behar dutela hezkuntza inklusioaren bidea, kalitateko heziketa bat emateko, hau da, heziketa bidezkoagoa eta ekitate handiagokoa lantzeko.

Eskola inklusiboaren balorerik garrantzitsuena da ekitatea. Gure mundua eta gure gizartea osaturik dago ezaugarri askotako pertsonaz; gure gizartea da askotarikoa, gero eta pluralagoa, eta ikasi behar dugunez bizitzen denon ezberdintasunak ulertu eta onartzen, modurik egokiena eta justuena da errealitate hori eskolan bizitzea. Inklusioak esan nahi du, hain zuzen ere, ikasle guztiak eskolaren parte izatea eta eskolaren parte sentitzea. Derrigorrezko eskolak moldatu behar ditu bere orientazioak, metodoak eta erritmoak, ikasleen garapena bideratzeko, izan ere, ikasleek jarrera, kode, kontzeptu eta espektatiba maila desberdinak dituzte sozializatzeko prozesuan. Eskola inklusiboan ume eta gazte guztiek elkarrekin ikasten dute, ikasteko zailtasunak eta gaitasun handiak dituztenak barne, edozein izanda ere haien jatorria, arraza, kultura edo maila ekonomikoa. Eskola inklusiboak hezkuntza integrala eskaintzen du, eta haurrek eskuratzen dituzte eduki akademikoak eta baloreak, eta indartzen dituzte garapen soziala eta pertsonala.

Eskola inklusiboan, aniztasuna ulertzen dugu balore moduan, eta horrela adierazi genuen 2005. urtean Goieskolaren Manifestuan Heziketaren alde. Orduetik hona eskoletako eta institutuetakoko ikasle aniztasunak etengabe jarri gaitu erronka berrien aurrean. Behar horiei guztiei erantzun egokia eman nahian, metodologia berriak esperimendu eta ezarri ditugu. Are gehiago, proiektu berriak martxan jarri izanak eraman gaitu kalitateko eskola bat lortzera.

Goieskolako ikastetxeetan berrikuntzari ekin diogu, eskola inklusiboaren printzipioetan oinarrituta. Gure ikastetxeetan martxan jarri ditugu zuzendaritza proiektu batzuk, eskola lidergoari ematen dizkietenak sendotasuna eta egonkortasuna; sistematizatu dugu ikastetxeen kudeaketa, bermatzeko kudeaketa prozesuetan etengabe hobetzea; ikastetxeen digitalizazioari ekin diogu ikasleen konpetentzia digitala garatzeko, eta horretarako prestakuntza gauzatu dugu irakasleak gaurkotzeko. Eta garrantzitsuena da, gure ikastetxeak benetan izan daitezen inklusiboak, lanean dihardugula aurrera eramaten gure lan metodologiaren berrikuntza, ardatzak izanik elkarbizitza proiektuak eta hezkuntza komunitatearen partaidetza.

Herri eskoletan eta institutuetan praktika asko egin dugu gelak benetan izan daitezen inklusiboak. Antzuolako herri eskola aitzindaria da proiektuen metodologia, eta bailaran hainbat ikastetxe dabil aurrera eramaten

metodologia hori, ikasle guztien gaitasunak garatzeko eta konpetentzia guztiak lantzeko. Geletan lan kooperatiboa egiten da, non ikasprozesua oinarritzen den berdinen arteko ikasketan eta elkarreraginean. Egokitzapenak eta laguntzak ematen ditugu gelan bertan, hainbatetan aritzen dira bi irakasle elkarlanean, ikasle guztien ikasprozesua hobetzeko. Sortzen ditugu material eta ekintza egokituak, egokitzeko ikasle bakoitzaren erritmoari eta sakontze maila askori. Egiten dugu ebaluazio pertsonalizatua, oinarritzen dena bakoitzaren aurrerapenetan eta hazkundean. Erabiltzen ditugu portfolio karpetak, ebaluatzeko ikasleak egindako lan pertsonalak.

Eskoriatzan, Luis Ezeiza eskolan, duela hiru urte hasi ginen lantzen Tximeleta Gela proiektua, zeinetan garun paralisiko ikasleak hasi ziren parte aktiboa izaten gainerako ikasleekin batera, eskolan bertan. Institutuetan baditugu Gela Egonkorrak eta ZIG gelak, laguntzeko hezkuntza premia bereziak dituztenei. Berrikuntza moduan, iaztik dugu Hauspoa proiektua hainbat ikastetxetan, orduz kanpo ikasleei emateko arreta zehatzagoa eta pertsonalagoa.

Jakin dakigu elkar ezagutzeak laguntzen digula aurreiritziak gainditzeko, eta, kulturartekotasuna indartzeko, martxan jarri ditugu hainbat eta hainbat programa eta ekintza: elkarrekin ikasten dugun bitartean, besteengandik ikasten dugu, bestea ezagutzen dugu, ikasten dugu elkar errespetatzen eta elkar baloratzen. Helduen Heziketari dagokionez, Arrasateko eta Bergarako helduen eskoletan, hizkuntza irakasteaz gain, buru-belarri dihardugu lantzen ikasleen integrazioa.

Gure eskolak aitzindariak izan dira praktika horietan; horregatik, jardunaldi eta kongresu batzuetan azaldu dugu zer diren gure praktika onak, eta egin dugu ere beste eskola batzuetako proiektuen tutoretza lana. Adibidez, Bergarako Agirreko San Martin eskolak tutorizatu ditu hamabi eskolaren proiektuak.

Ondorioa ateratze aldera, Goieskolako zuzendariok pentsatzen dugu aniztasuna eta inklusioa erronka garrantzitsuak direla gaur egun gure gizartean, eta etorkizunean ere hala izango direla. Goieskolan uste dugu ikasleen aniztasunak aberastu egiten gaituela, eta hor sartzen dira irakasleak, ikasleak, hezkuntza komunitatea, eta nola ez, gizartea bere osotasunean. Guk, eskolatik, gure ekarpena egin nahi diogu gizarte aniztun honi, gaur eta etorkizunean, gizartea izan dadin kohesionatua, gure ikasleak hezi daitezten aniztasunean eta elkarren arteko errespetuan. Hezkuntza da bide nagusi bat gizartearen ezberdintasun ekonomikoak eta kulturalak gainditzeko eta konpentsatzeko. Eskolak baldin badu funtzio hezitzaile bat gizartea eta errealitatea eraldatzeko, inklusioa izan behar du.

Azken batean, inklusioa da giza eskubide bat. Tony Booth ikertzailearen hitzetan (Commonwealth-en Hezkuntza Zentroan), inklusioa da komunitatea eta parte hartzea.